ALHAO ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**

2026ko urriaren 7a, asteazkena • 115 zk.

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

ENPLEGU, MERKATARITZA, TURISMO ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

481/2026 Foru Agindua, irailaren 29koa. Karrerako funtzionarioen izendatze gehigarria, administrazio bereziko eskalako teknikarien azpieskalako erdi-mailakoteknikari, arquitekto tekniko klasean, A2 sailkapen azpitaldean karrerako funtzionario gisa sartzeko deialdian, zeina Arabako Foru Aldundiko 2022ko EPEari baitagokio

671/2024 Foru Aginduaren bidez, onespena eman zitzaien Arabako Foru Aldundian karrerako funtzionario sartzeko 2021eko, 2022ko eta 2023ko enplegu eskaintzei dagozkien hautaketa prozesuak arautuko dituzten oinarri orokorrei.

2024ko abenduaren 18ko 676/2024 foru aginduen bidez, onespena eman zitzaien Arabako Foru Aldundiko administrazio bereziko eskalako teknikarien azpieskalako erdi-mailako teknikarien klasean (arkitekto teknikoa), A2 sailkapen azpitaldean, karrerako funtzionario gisa sartzeko hautaketa prozesuaren oinarri espezifikoei, enplegu publikoaren eskaintzako 2022ko deialdiei dagokienez.

Hautaketa-prozesua amaitu eta epaimahai kalifikatzaileak hura gainditu duten izangaiak izendatzeko proposamena egin ondoren, karrerako funtzionario izendatu behar dira administrazio berezian, azpieskala teknikoan, erdi-mailako teknikaren klasean (arkitekto teknikoa), A taldean, A2 azpitaldean.

Uztailaren 9ko 354/2026 Foru Aginduaren bidez, Arabako Foru Aldundiaren 2022ko lan-eskaintza publikoei dagokien administrazio bereziko eskalan, azpieskala teknikoan, klase tekniko ertainean, arkitekto teknikoan eta A2 sailkapen-azpitaldean sartzeko deialdiko karrerako funtzionario izendatu ziren behin betiko azken zerrendako lehenengo lau hautagaiak.

Uztailaren 14ko 368/2026 Foru Aginduaren bidez, uztailaren 9ko 354/2026 Foru Aginduan izendatutako lau hautagaietako bati borondatezko eszedentzia ematea xedatu zen, lanpostu erreserbarik gabe.

Beraz, azken behin betiko zerrendako hurrengo hautagaia izendatu behar da.

Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 30eko 154/1993 Foru Dekretuaren bidez, funtzio publikoaren arloko eskumenak ezarri ziren, eta uztailaren 29ko Foru Gobernu Kontseiluaren 29/2025 Foru Dekretuaren bidez, Enplegu, Merkataritza, Turismo eta Foru Administrazioaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala onetsi ziren. Horrez gain, Diputatu Nagusiaren ekainaren 30eko 152/2023 Foru Dekretuak Arabako Foru Aldundiaren sailak zehaztu zituen 2023-2027 legegintzaldirako. Horrela, bada, dekretu horietan guztietan xedatutakoarekin bat etorriz, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Karrerako funtzionario izendatze gehigarria, administrazio berezian, azpieskala teknikoan, erdi-mailako teknikarien klasean (arkitekto teknikoa), A taldean, A2 azpitaldean, karrerako funtzionario gisa sartzeko enplegu publikoaren eskaintzako 2022ko deialdia gainditu duten izangaiak, ondoren adierazten den lanpostuari atxikita:

IZENA	KODEA	LANPOSTUA
FERNANDEZ DE LABASTIDA GOMEZ, MIKEL	1222.001	KATASTROKO ERDI MAILAKO TEKNIKARIA / TECNICO/A MEDIO/A CATASTRO

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Bigarrena. Izendatutako pertsonak 2026ko urriaren 13an jabetu beharko du esleitutako lanpostuaz.

Ezarritako egunean lanpostua jabetzan hartzen ez badu, salbu eta ezinbesteko kasuetan, galdu egingo ditu deialdiaren ondoriozko eskubideak Arabako Foru Aldundiaren funtzionario izaera eskuratzeko.

Hirugarrena. Sartu berri diren funtzionarioak adjudikatutako lanpostuei atxikitzeak behin betiko izaera izango du, eta lanpostuak hornitzeko sistemaren bidez lortutakoa izango da ondorio guztietarako.

Laugarrena. Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Vitoria-Gasteizko Instantzia Auzitegiko Administrazioarekiko Auzien Sekzioari, bi hilabeteko epean, jakinarazpen honen biharamunetik aurrera, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8. eta 46.1 artikuluetan ezarritakoaren arabera; edo, aukeran, administrazioarekiko auzibidean aurkaratu aurretik, erreklamazioa, jakinarazpen honen biharamunetik aurrera hilabeteko epean, Gardentasunerako Foru Kontseiluari.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko irailaren 29a

Lehen diputatu nagusiordea eta Enplegu, Merkataritza, Turismo eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua
CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR

Firmante: CN=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=SELLO ELECTRONICO, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-P0100000I, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 267116
Fecha de firma: 2026.10.07 05:52:45 Z